

Kao-Sumendiko sekretua eta Fisika jostagarri

Solabarrieta Arrizabalaga, Daniel
Elhuyar Edizioak

Elhuyar Fundazioak aisialdiko bi produktu kaleratu berri ditu gazteentzat. Punta-puntako abenturako bideo-jokoa da bat, eta guztion eskura dauden osagaiekin egin daitezkeen esperimenteren liburua, bestea.

KAO-Sumendiko sekretua bideo-jokoa

Bideo-jokoez gazteen artean duten arrakasta ikusirik, Elhuyar Fundazioak euskarazko bideo-jokoen aukera zabaldu nahi du itzulpen berri honekin, gazteek aisialdian euskarazko eta kalitateko produktuekin jolasteko aukera izan dezaten. Sumendiko sekretuaren jokoan, Kao protagonistak hainbat abentura biziko ditu, eta, aurrera egiteko, bere lagun pelikanoen laguntza izango du.

Jokoaren ezaugarri nagusia eta erakar-garriena da jokatzeko modu ugari dituela. Era askotako misioak izango ditu jokalaria, erdietsi beharreko helburuei eta horretarako behar diren trebetasunei dagokienez. Esaterako, arrastaka doazen sustriak saihestu beharko ditu, hegazkinekin batailatu, puzzleak osatu, errealitate birtualaren simulagailuetan irudikatutako lasterketak egin, adimen artifizialdun etsaiekin borrokatu...



Horrez gain, jokalaria askatasun osoz mugitu ahal izango da maila batetik bestera, eta hobekien ateratzen zaizkion misioak erraz-erraz errepikatu ahal izango ditu, nahi adina aldiz.

Fisika jostagarri, asmakizun zirrargarriak

Uda honetarako bigarren aukera ez da edonolako liburua. Eduardo de Campos Valadares brasildarraren *Física mais que divertida* liburuaren itzulpena prestatu du Elhuyar Fundazioak. Bai bakarrik eta bai taldean egiteko esperimenteren bilduma bat da. Helburua da fisikako gertakariak haurrei helaraztea, zientzia transmititzeko hizkera egoki batean. Hala, material eskuragarri eta merkeetatik abiatuta, fisikaren, eta, oro har, zientzien jakintzan sar gaitzke. *Papezko zerra, Ur-suziriak, Aldatz gora dabilen gorpila, eta Globoak erre eztanda eginarazi gabe dira esperimenteruak*

batzuk. Esperimenteruak oso era ulergarrian azaltzen ditu liburuak, eta horiek egiteko behar diren osagaien eta hartu behar diren segurtasun neurrien berri ere ematen du, betiere edukien zorrotasuna gutxietsi gabe.

Fisika jostagarri liburuak saiakuntzak bost zati nagusitan banatuta daude: *Mekanika dibertigarria; Argiarekin jolasean; Optika; Atomoen mundua eta gure mundua; Hotza, beroa eta burbuila erraldoiak; Soinuekin jolasean; Akustika; eta Esperimenteru elektrizatzaileak: Elektrizitatea eta magnetismoa*. Esperimenteruak eta prototipoak elkarrekin konektatzen dituzten hainbat lotura daude, zientzien inguruko ikuspegi berritzaileekin bat eginez, fisika ohiko eremuetan banatzeko joera artifiziala gainditu eta zientzien barruko mugak ezabatuzko asmoarekin. 